

2011KO MARTXOAREN 14AN GOBERNU BATZARRAK EGINDAKO OHIKO BILERAREN AKTA

LEKUA: Beasaingo Udaletxea.

ARETOA: Batzar Aretoa.

EGUNA: Hamalaua.

HILABETEA: Martxoa.

URTEA: Bi mila eta hamaika.

HASIERAKO ORDUA: Goizeko hamaiketan.

BATZARRALDIAREN IZAERA: Ohikoa

DEIALDIA: Lehena

OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA: Sei (6)

MAHAIBURUA: Patxi Plazaola Muguruza

BILDUAK: Aitor Aldasoro Iturbe
Begoña Lasa Royuela
Julio Herreros Serna

EZ DIRA ETORRI: Fernando Boada González
Josi Insausti Mujika

IDAZKARIA: Itziar Arostegi Apaolaza

1.- AURREKO AKTA. 2011ko otsailaren 28ko aktaren berri eman ondoren, bildutakoek aho batez onartu dute aktarekiko zeresanik ez dagoelako.

2.- OBRAK KONTRATATZEA: Nekolalde kalean igogailua jartzeko obrak kontratatzea.

Hirigintza batzordeko proposamenaren arabera, aho batez ondorengo erabakia hartu da:

- Juan Beldarrain arkitektoak egindako, Nekolalde kaletik Arangoiti egoitzara joateko proiektua onartzea.
- Igogailua jartzeko obrak kontratatzea eta horretarako baldintza plegua onartzea. Lizitazio prezioa, **162.017,09 € gehi BEZ**, denez kontratazioa prozedura negoziatuaren bidez egitea erabakia da, esleipen irizpidea, prezio baxuena izanik. Egikaritze epea 12 astekoa izango da. Beraz, gutxienez hiru enpresei gonbidapena bidaliko zaie lizitaziora aurkezteko.

Bozketa eginda, aho batez onartu da proposamena.

3.- ZERBITZUAK KONTRATAZEA.

Beasaingo Udalaren tributuen eta zuzenbide publikoko beste diru sarreren betearazpideko zergabilketarako elkarlanak kontratatzea.

Hazienda batzordeak proposatuta, ondorengo erabakia hartu da aho batez:

Lehenik. Deialdi publikoa egitea, Beasaingo Udalaren tributuen eta zuzenbide publikoko beste diru-sarreren betearazpideko zergabilketareko elkarlana kontratatzeko. Horretarako baldintza administratibo onartu da.

Ezaugarriak:

1.- Prozedura: irekia publizitatearekin

2.- Izapidetzea: arrunta

3.- Lizitazio prezioa: Kontratuaren prezioa (hasiera batean ezin dena zenbatekotu) adjudikatariak egindako lanen arabera eta aurrera eramandako gestio eta zerbitzu hoiek lortutako emaitzen arabera sortuko da.

Lan horregaitik jasoko da:

A) Betearazpideko zergabilketa:

Jasotako zenbatekoen printzipalaren gaineko %20raino, BEZ kanpo.

B) Berandutza Korrituak:

Betearazpideko epealdian kobratutako berandutza interesen %50eraino, horren kalkulo, likidazio, notifikazio eta kobrantzarako adjudikatariak gauzatutako gestioen kontraprestazio moduan (BEZ kanpo)

Udalaren kargurakoak izango dira prozeduraren kostuak.

4.- Klasifikazioa: L taldea, 2 Azpitaldea eta A kategoria.

5.- Espedientea: administrazio-baldintzen plegua eta bestelako dokumentazioa, interesatuen esku aurkitzen dira, Udalaren web orrian (www.beasain.net). Zehazki kontratatzailearen profilean.

6.- Proposamen eredia: Baldintza Administrazioen pleguaren azaltzen dena.

7.- Aurkezteko epea, lekua eta ordua: Proposamenak, Beasaingo Udalaren Erregistro Orokorrean aurkeztu beharko dira iragarkia, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, argitaratzen denetik eta hurrengo 15 egunetan.

8.- Adjudikazio irizpideak:

- Proposamen ekonomikoa: 50 puntu.
- Memoria: 40 puntu.
- Programa informatikoa: 10 puntu.

9.- Proposamenak irekitzeko lekua, eguna eta ordua: plicka irekitzea kontratistatzailearen profileen argitaratzen den tokian, egunean eta orduan egingo da.

10.- Aurkeztu beharreko agiriak: Lizitatzailleek administrazio-baldintzen Pleguan adierazitako agiriak aurkeztu beharko dituzte.

4.- GASTUA HANDITZEA. Kale Nagusia oineztatzeke (III eta IV faseak) obrak likidatzea eta gastua handitzea.

Puntu honetan Udal aparejadorearen txostena ezagutzera eman da.

“2010eko martxoaren 26an Gobernu Batzordeak deialdia egitea erabaki zuen 1. area oineztatzeke, 3. fasea (kale Nagusia) eta 4. fasea (J. M. Iturriotz eta Bideluze plaza), horretarako baldintza plegu administratiboa onartu zen. Proiektua berriz, 2010eko otsailaren 1ean Gobernu Batzordeak onartu zuen

Gobernu Batzordeak, kontratazio mahaiaren proposamena jarrituz, erabaki zuen aipatutako obrak, URBYCOLAN, S.L. enpresari esleitzea, 1.107.496,06 €tan, BEZ barne, egikaritze epea, 20 astekoa izanik.

Obrak egiterakoan, adjudikazioarekiko desbideraketa suposatzen duten aurreikusitako gabekoak ez dira azaldu, BEZren igokada izan ezik. Izan ere, obra lizitatu zenean, Bez %16koa zen eta egikaritzerakoan aldiz, %18koa.

Gainera esan, sarbideko kontrol sistemaren kostuak sartu direla eta horrek eragin du obraren likidazioa, 1.171.072,59 ekoa (BEZ barne) izatea. Horrek esleitutakoarekiko %5,74ko desbideraketa suposatu du. Horrela adierazten da aurkeztu den obra-ziurtagirian.”

Idazkariak bere aldetik, bere txostenean honela dio:

“Kontratua aldatu beharrik gabe, legeak beste bide batzuk markatzen dituela sor daitezken akatsak konpontzeke, atzerapen edota enbarazurik sortu gabe, hau da:

1.- Alde batetik, proiektuaren akatsak zuzenean konpondu daitezke, aurrekontuaren %20a lortzen ez bada. Akatsak %20a gainditzen badute, kontratua bertan behera uztea suposatuko luke.

2.- Urriaren 12ko 1098/2001, Erret Dekretuak onartzen duen Administrazio Publikoetako Kontratu-Legearen Araudiaren 160.1 artikulua, %10erainoko unitate gehikuntza onartzen du.

Esan daiteke sarbideko kontrol sistemak suposatzen duen kostua, obra-unitateak gehitzea dela, baina hauek nahiz BEZren igoerak, adjudikatutakoarekiko %5,74 igoera suposatzen dute eta horren ondorioz ez da beharrezkoa ez kontratua bertan behera uztea ezta lizitazio berri bat egitea ere.

Egin behar dena, ordea, Gobernu Batzordeak gehikuntza hori eta bide batez obren azken likidazioa onartzea da.”

Bozketa eginda, aho batez onartu da proposamena.

5.- ESKAERA ETA GALDERAK

Eskaera eta galderen atalean ez da inolakorik aurkeztu.

Eta tratatzeko besterik ezean, bilera goizeko 11,30etan amaitu da eta nik, idazkari naizen honek, akta hau idatzi eta sinatu dut.